

“HERRI MUSIKA BILDUMAK” HM 11. JARDUNALDIAN (2012/11/12-18)

Dagoeneko gure inguruko guztientzat ezaguna denez, aurten dira hamar urte publikorako Herri Musikaren Txokoaren ateak zabaltu genituenetik. Hori ospatzeko urtean zehar ekintza ezberdinak antolatzen ari gara, eta urteroko Jardunaldien aurtengo edizioko gaiak gure proiektuarekin zer ikusia behar zuela eduki pentsatu genuen.



Ikusteko Musika bildumako zenbait soinu-tresna. José Luis Loidi & Lourdes Yarza

Zalantzarik gabe Juan Mari Beltranek urtetan biblioteka, fonoteka, irudi eta soinu-tresnaz osatutako herri musika bilduma izan zen gaur egun Soinuenea den proiektu honen oinarrietako bat eta errealitate hau gauzatzeko behar zena ahalbideratu zuena. Halako bildumak dira museo, zentro eta bestelako edozein proiekturen mamia eta edukia.

Horregatik aukeratu genuen “Herri Musika Bildumak” izenburuko gaia gure hamargarren urteurreneko edizio-rako.

Azaroaren 12 eta 18 artean

Jardunaldi hauetan biltzaileak eta hauen jarduerak ezagutu nahi ditugu. Batetik biltzaileen izaera, prestakuntza, biltzeko eta antolatzeko sistemak, motibazioak, erronkak, helburuak,... ezagutu nahi ditugu, baina baita jaso dituzten bildumen historiak, ezaugarriak eta arima ere. Bilduma hauen kontserbazioa, zaintza, funtsa, balioa, antolaketa, erabilpena, zabalkundea eta, azkenean, dokumentazio bilduma hauek gaur egungo eta biharko gizarte-an kultur ezagutzan eta sorkuntzan egin dezaketen ekarpena.

Ospatuko ditugun Jardunaldi hauen antolaketan Soinueneak eta Herri Musika Zaleak Kultur Elkarteak gai

honetan eskarmentu handiko bi laguntzaile paregabe ditugu, “Ikusteko Musika-Música para ver” Munduko Soinu-tresna Bilduma eta Iruñeko Ortzadar Euskal Folklore Elkarte.

Oiartzunen 2012ko azaroaren 12tik 18ra ospatuko dugun edizio honetarako “Herri Musika Bildumak” gaiaren inguruko adituen parte hartzearekin egitarau zabala antolatu dugu:

Azaroak 12, astelehena.

19:30: Oiartzungo Udaletxeko Areto Nagusian José Luis Loidi & Lourdes Yarzaren *Ikusteko Musika-Entzuteko Artea* erakusketaren inaugurazioa. Ekitaldi honetan biltzaileek bisita gidatua eskainiko dute. Erakusketa hau azaroak 24 arte zabalik egongo da.

Azaroak 15, osteguna.

16:00etan *Ikusteko Musika-Entzuteko Artea* Oiartzungo ikastetxeetako ikasleentzat erakusketaren bisita gidatua.

Azaroak 16, ostirala.

19:30etan Oiartzungo Udaletxeko Areto Nagusian Kepa Ugarte eta Juan Mari Beltranek 2008an egindako HM Txokoa Oiartzunen DVDaren proiektioa. Lan honetan irudi eta hotsen bitartez Soinuenearen historiaurrea, historia eta gaurko jardueren aurkezpen orokorra ageri da.

Azaroak 17, larunbata.

10:30etan Oiartzungo Udaletxeko Areto Nagusian: MINTEGIA

- 10:30: Aurkezpena

- 11:00: *Ikusteko Musika* bildumaren historia. José Luis Loidi & Lourdes Yarza.

- 11:45: Xixongo Museoko bilduma. Alfonso Fernández García.

- 12:45: Gure herri musikaren hots eta irudiak-Ortzadar Taldeko Herri Musika Bildumak. Ortzadar Taldea.

- 14:30: Bazkaria.

- 16:00: José Luis Loidi & Lourdes Yarzaren *Ikusteko Musika* bildumaren biltegian bisita (25 bisitarira mugatua).

- 17:30: Mahai inguru.

Moderatzailea: Juan Mari Beltran.

- 19:00: HERRI MUSIKA FILMAZIO PROIEKZIOAK

Lesakako Sanferminak

E.X. Dueñas/L.F. Gonzalez
Asturiaseko herri musika

Muséu del Pueblu d'Asturies
Gure folkloreakaren hots-irudiak
Ortzadar taldea

Azaroak 18, igandea.

- 11:00: Oiartzun. Elizalde auzoan. Euskal herri soinu-tresnak kalez kale

- 12:30: Kontzejupean Euskal herri soinu-tresnak kontzertua.

- 14:30: Ergoingo Auzokalte Elkarte. Bazkaria

- 16:30: Soinuenean. Laguntzaileei omenaldia. Herri Musika Festa.

KONTZERTUAK HM TXOKOAN

Udazkeneko kontzertua

2012ko urriaren 6an - 18:30tan

PABLO CARPINTERO TRIO

Rosa Sánchez, Gustavo Couto eta Pablo Carpintero

**SARRERA
5 EURO**



Rosa Sánchez, Gustavo Couto eta Pablo Carpintero galiziar herri musika dantza zein musika talde ezberdinekin bazter guztietan ezagutzera ematen urte mordo daramaten musikariak dira.

Rosa Sánchezek bere burua etxe-koandre, dantzari, pandero-jole eta danbor-jole bezala aurkezten du. Badira 20 urte Pablo Carpintero laguntzen hasi zenetik eta horretaz gain *Ultreia* eta *A Requinta de Xián* taldeetako partaidea da.

Gustavo Couto, berriz, perkusiojolea du. Gainera galiziar dantza herrikoiaren irakaslea eta zenbait dantza talde zuzentzen ditu. Hau ere *Ultreia* taldean aritzen da Rosarekin batera eta *Carapus* taldeko partaidea ere bada.

Pablo Carpintero zientzietan doktorea, UNESCOren aholkularia Kultur Ondare Ukiezinen arloan, etnomusikologoa, Galiziako soinu-tresna herrikoiaren egilea eta gaita-jolea da. Gaita irakaslea eta galiziar musika herrikoia lantzen duten zenbait taldeetako zuzendaria da.

Hirukote honek eskaintzen duen emanaldiak galiziar herri musika bere soinu-tresnetako batzuen bidez eza-

gutza ematea du helburu. Arlo hau ikertzen 20 urtetik gora eman ondoren Galizian 150 soinu-tresna ezberdin baino gehiago dokumentatu zituzten eta "*Os instrumentos Musicais na Tradição Galega*" argitalpenean azaldu zituzten. Soinu-tresna haien artean bereziki nabarmentzen dira zazpi zahagidun gaita ezberdin eta haiek dira emanaldiko ardatza: erdi-aroko egitura duen gaita, *gaita de ronquillo*, *lau ahotseko gaita*, *gaita de barquín*, kanabera eta intsusaz egindako gaita eta, azkenik, *rosca*.

Kontzertuak dirauen bitartean galiziar musikan garrantzi handiena duten soinu-tresnak ageri dira. Gaitekin batera, bera laguntzen duten kaxa, danborra eta bonboa. Soinu-tresna haiek jotzeko garaian, kontuan izaten dute garai batean eskualde bakoitzak bere zahagidun gaita, errepertorioa eta jotzeko era bereziak zituela. Horregatik, emanaldiaren hel-

buruak laguntzeko gaita bakoitzarekin bere jatorrizko eskualdean bildutako doinuak jotzen dituzte, gaita-jole zaharrei hartutako doinua izan ohi dena.

Gaitarekin egindako musikaz gain *Emakumeen musika* deitutakoa ere egin izan da, musika hori egiteko soinu-tresna jakin batzuk erabiltzen zituztela, *ferreñas*, *pandereta*, *pandeira*, *pandeiro* eta *lata* esate baterako.

Saioa osatzeko, garai batean nekazal ingurunean erabiltzen ziren beste soinu-tresna batzuekin ere emango dituzte hainbat doinu. Adineko jendearen memorian bizirik dirautenak dira, baina entzule gehienek artean ezezagunak. Tartean dira, tronpa, huntz hostoa, zekalezko turuta, kanaberazko flauta zuzenak eta zeharkakoak, Ullako errekin, caramelak (ahuntz adarrekin egindako flautak) eta arrabita. Eskusoinu eta biolinarekin ere laguntzen dira zenbait abesti.

**HAURRENTZAT
eta GURASOENTZAT
KONTZERTU DIDAKTIKOA**

PABLO CARPINTERO TRIO
GALIZIAKO HERRI SOINU-TRESNAK

Lekua: Auzokalte elkarte
(Ergoien)

Eguna: 2012-10-06

Ordua: 12:00

SOINUJENEA

AMAIA ZUBIRIA eta EDORTA AMURUA



Amaia Zubiriak ibilbide luzea darama euskal kantagintzan; 1977 urtean Haizea taldean parte hartu zuen, klasiko bihurtu diren bi disko argitaratuz (*Haizea* eta *Hontz Gaua*). Taldea desgitean, filmetako musika egiteari ekin zion (*La Fuga de Segovia*, *La Muerte de Mikel...*). Laurogeiko hamarkadan Pascal Gaigne gitarrajolearekin bikotea osatu zuen eta bi lan atera zituzten elkarrekin (*Egun Argi Hartan* eta *Kolorez eta Ametsez*). Ondoren, Txomin Artolarekin kantu zaharrez osatutako hiru diska arrakastatsu argitaratu zituen (*Folk-Lore Sorta*). Aurrerantzean, bakarlari lanari ekin

dio hainbat diska grabatuz (*Amonaren Mengantza*, *Mami Xuri*, *Haatik*, *Nabil* eta *Amona Mantangorri*).

Amaiaren kantuak doinu herrikoietan oinarritzen dira, eta hitzek bere errealitateari buruzko ikuspuntu pertsonala islatzen dute, emakume eta euskaldun den aldetik. Bere kantaldietan nabaria da publikoarekiko hurbiltasuna eta bere ahotsaren esan-kortasun hunkigarria.

Azken urteetan, bere semea den Edortarekin hainbat kantaldi eman ditu, ahotsa eta gitarra soilaren doi-

nua eskainiaz, beti ere intimotasun giro bat bilatzen.

Kontzertu honetarako aukeratu duten abesti sortan Amaiaren uzta propioko kantuak eta euskal kantutegi herrikoikoak tartekatuta entzuteko aukera izango da. Hala, berak sortutako abestien artean izango dira *Paradisu bat*, *Hi bezala*, *Mami xuri*, *Ondoan zauzkat*, *Maria*, *Mieleru*, *Amonaren mengantza* eta *Ezin zen eta ez ginen*. Herri kantutegian txertatuta dauden abestien artean *Brodutzen*, *Amodioa*, *Loriak udan*, *Biyotzeko asto gaxua* eta *Txiki txikitik* emango dituzte.

Udazkeneko kontzertua SOINUENEA - Herri Musikaren Txokoan

AFARIA KONTZERTU ONDOREN

Afaria Auzokalte Elkartearen izango da, kontzerturako erabiliko den areto berdinean. Bertan musikariekin egon, jan, kantatu, jo eta dantzatzeko aukera izango da. Izena emateko komeni da lehen bait lehen deitzea, lekua mugatua baita.

Prezioa (kontzertua barne): 20 euro.



kontzertu honen
laguntzaileak:



DULTZAINEROAK XANISTEBANETAN

Oiartzungo Xanistebanak abuztuaren 2aren eta 6aren artean ospatu ziren. Festak aitzakia bikaina izan ziren soinu-tresnak hartu eta giroa alaitzen laguntzeko. Han izan ziren, besteak beste, Oiartzunen orduan eta maizago entzuten diren dultzainak. Abuztuaren 4an Euskal Herriko Erraldoien Topaketan leku ezberdinetako musikarien artean dultzaineroak izan ziren erraldoiak laguntzen, hurrengo egunean Hernaniko Soinua taldetik girotu zuten plazan izan zen dantza bilera, baina bereziki abuztuaren 6an nabarmendu ziren. Batetik, eguerdi aldean, Lartaun abesbatzako kideek kalean kantatzeko egindako deialdia laguntzen aritu ziren ahotsak deskantsatzen zuten bitartean beraiek joaz eta bestetik, arratsaldean, Oarsoaldeko eta Donostialdeko Dultzaineroen 6. Topaketa izan zen.



Dultzaineroak kalejiran Oiartzungo kaleetan. HMT

BONOAREKIN SOINUENEAN ERE BAI

Azken urteetan gertatzen ari diren aldaketak, eta bereziki azken hilabeteetakoak, elkarlanaren garrantzia gogorarazten ari zaizkigu. Horren adibideetako bat Oarsoaldeko hainbat museoren artean egindako bilera eta buru nekatzeen ondoren sortu den bono berria da. Bere sorkuntzan parte hartu duten museoak Arditurri, Luberrri, Soinuenea, San Marko, Victor Hugo, Mater eta Ondartxo dira.

Bederatzi euro balio duen bono honek *Lurraren eta itsasoaren soinuan dantzan* izena du. Aipatutako, eskualdean kokatuta dauden, zazpi museoetan sartzeko aukera ematen du eta 2013ko abuztuaren baterainoko balioa du, hau da, orain erosi ezker, bonoaren jabeak, edo berak erabakitzen duen edonork, hurrengo urteko abuztuaren baterainoko epea dauka zazpi museoak bisitatzeko. Bono hau Oiartzunen eta Pasai Donibanen dauden turismo bulegoetan eskura daiteke, edo nahiago duenak zazpi museoetako edozeinetan.

Udan jarri zen kalean eta dagoeneko hainbat bisitarik eskuratu eta erabiltzeko aukera izan dute.



IKASTURTEA HASI DA

Uda bukatu da eta irakasle-ikasleak Oiartzungo Herri Musika Eskolara itzuli dira. Urruti dago pasa den ikasturte bukaeran emandako kontzertua eta are urrutiago ikasturte honen bukaeran emango dena. Bitartean makina bat klase, hainbat jarduera, zenbat eta zenbat ohar partituren ondoan irakasleak esanak, beste mardoska bat kolore ezberdinetan partituran bertan markatuak, denak izango dira beharrezko dena-delako soinu-tresnarekin ahalik eta emaitza txukunena lortzeko. Fandango, arin-arin, martxa eta bestelakoak piskanaka zailtzen joango dira hasieran zailak ematen zuten pieza haiek erraz bilakatzeko asmoz eta, batez ere, azkenik ikaslea libre egiteko. Jo nahi duena erabakitzeke libre, edozein partitura hartu eta jotzeko libre, doinu bat entzun eta errepikatzeko libre.

Ez dezagun pentsa ordea bidea maldarik gabea izango denik. Ikasten ari dena nekatuko da, makina batetan trabatu ere egingo da, aldiro jaiki eta berriro aurrera jarraitzeko.

Indarrak ikasturte hasieran bezala bukaeran lagun ditzala bide hau egitea erabaki duten guztiak.



Klaseak Madalensoro pilotalekuan dauden getetan ematen dira, tartean txalapartakoak. HMT

BISITARI KOPURUA

Azken hiru hilabeteetan: bisitari kopurua: 562

Antolatutako taldeak: 19

Bisitari kopurua iraila arte: 3449

WEB ORRIRA BISITAK

Azken hiru hilabeteetan: 11313

SOINUENEA - HERRI MUSIKAREN TXOKOA

Tornola kalea, 6 - 20 180 OIARTZUN

Tel / Fax 0034 943 493 578

herrimusika@herrimusika.org

www.herrimusika.org



OIARTZUNGO
UDALA